



Helduen Literatura

Hobe isilik
Garbiñe Ubeda
Elkar, 2013

Idazteko arrazoiak

GEORGE ORWELLEK prosa idazteko zerrendatu zituen arrazoen artean bi topatu ditugu nabarmen Garbiñe Ubedaren *Hobe isilik* lanean: benetako historia ezagutu eta gerokoentzat uzteko desioa eta mundu ikuskera aldatzeko bultzada politikoa. Narrazioan zehar protagonista bere aitona zenaren arrasto galdua argitu nahian ibiliko da, eta bidean topatutakoei lekua egiten izango du lanik gogorrena. Hasiera batean bere familiaren historia ezagutzeko nahiak gidatuko du eta amaieran dilema handia agertuko zaio parez pare: zer egin, sekretua gorde ala egia jakin(arazi)? Memoria berreskuratzuz bere identitatea osatuko du, aspaldi aitona inguruan fabrikatu zuten irudia, “anarkista prestuaren mitoa”, aldatzen joango da, bilakaera bat izango du datu berrien argira, eta kapituluz kapitulu agertuko diren pista berriekin makrohistoriatik mikrohistoriarako jauzia egingo du, bere sustraiak ezagutuz eta errealtatean gertatu zenetik pixka bat hurbilago kokatuz.

Protagonistak detektibe lana egiten du aitona urratsen atzetik joateko, eta bide horretan senarra eta ileapaintzailea ditu konplize eta bidelagun. Aurkitzen duen guztia “bitakora kaiera” batean jasotzen du, asimilatu ahal izateko eta bere ideia eta emozioak antolatu ahal izateko, jasotako informazioari esanahia eman ahal izateko, bere aitona bizitza eta erabakiak ulertu nahian. Virginia Woolfek behin esan zuen beretzat ezer ez zela erreala, idazten zuena izan ezik. Eta hori da protagonistak egiten duena, bere mamuak hezur-

haragizko bihurtu eta haiekin bakeak egin. Koaderno/elaberri honetan aitona zuzenean hitz egingo dio bizien artera itzuliz, berarekin elkarrizketa bat izango da idatzizko testu hau, eta horregatik/horretarako agertuko da etengabe bigarren pertsona singularra aitona hitz egitean. Zu, eta gu.

Gloria Anzalduarentzat idaztea arlo espiritual, politiko, sozial, sexual eta etnikoen alkimia egitea da, idazlearen munstro eta mamuekin konfrontatuz. Garbiñe Ubedak ARGIAN egindako elkarrizketan dio berak galderak egin dituela, ez erantzunak eman. Adibidez: zer egin topatutako gertaerekin? Nola ulertu gertatutakoak atzean dauden arrazoiak ezagutu gabe? Familiaren historian murgiltzean argi-ilunak topatuko ditu edonork eta leku bat egingo die aurkitutakoei, han edo hemen kokatuko ditu, sekretu bihurtuko du eta kutxa batean gordeko ala senide eta lagunei kontatu eta egia bat sortu. Kasu honetan ideologia eta emozioak uztartuta topatzen ditugu eta protagonistaren bihozkadak, obsesioak eta maniak izango dira akuilu historia hau idazteko. Azkenean bestea erraz eta arinki epaitu beharrean, egindakoa eta izandakoa onartu eta errespetatzeko eskaera egingo digute Bakartxok eta Pernanek, bakoitza bere garaian eta bere egoeraren baitan kokatuz eta horren arabera ulertuz. ■

Amaia Alvarez Uria





KUADRILLA ARTEKOAN

EZ DAGO SUPERHEROIRIK

www.bertsozale.com/araba



otsailak 18-apirilak 5

